

MEZU BIDEZKO BOZKAREN JARRAIBIDEAK



Kartazal handi batean bidaliko dugun materiala:

- **Bozka.** Erantzuna X batez markatu behar da. Ez badago X-rik markatuta txuri gisa hartuko da eta bestelako elementurik baldin badauka baliogabetzat hartuko da.
- **Bozka papera.**
- **Identifikazio orritxoak.**
- **Bozkatzeko jarraibideak.**
- Bi kartazal handiagoak:
 - Bi kartazalak erreferentzia batekin identifikatuak egongo dira. Erreferentzia hauen bitartez pertsonaren nortasuna eta bozka erraz egiaztatuko ditugu.
 - Bidalketa helbidea idatzia izango dute bi kartazalek.

Bozka emaileak egin beharrekoa ondorengoa litzake:

- **Nortasun Agiria (NAN) konpultsatu** bertako erakunde batean (udaletxe...). Nortasun agiriaren kopia konpultsatuekin batera, jabeak, **bere argazkia bidaliko du.**
- Antolatzaileek bidalitako **identifikazio orritxoak sinatu eta bitan moztuta, zati bakoitzean sinaduraren zati bat** dagoelarik.
- Erreferentzia batekin identifikatuak dauden **bi kartazalak bidali** beharko ditu.

Kartazal batean:

- Bozka kartazala ondo itxita bere hautua barruan duelarik sartu.
- Antolatzaileen identifikazio orritxo zati bat, bere sinadura zatiarekin, sartu.
- Kartazala itxi eta itxituran sinatu ondoren itxitura zelo gardenarekin zigilatu.

Beste kartazalean:

- Nortasun agiri konpultsatua sartu.
- Nortasun agiri konpultsatua eta agiriaren jabea elkarrekin ateratako argazki bat sartu.
- Antolatzaileen identifikazio orritxoaren beste zatia, bere sinadura zatiarekin, sartu.
- Kartazala itxi eta itxituran sinatu ondoren itxitura zelo gardenarekin zigilatu.